

Abestuz, mundua ezagutu

Ariadne Etxetxikia Sustraien Ahotsa, Pasaia eta San Inazio abesbatzeta-ko kide dugu. Auzotarrak makina bat bidaiar egin ditu abesbatza hauekin, eta horietako batzuen berri eman digu.

Aitor Urkizu Azuabarrena

Sustraian Ahotsa abesbatzako 20 bat kideekin Txilen izan zen Ariadne, 2001eko gabonetan. "Hasieran, bira Txilen hasteko eta Argentinan bukatzeko asmoa genuen, baina Argentina krisia bete-betean zegoen garai hartan eta, ondorioz, Txilen besterik ez ginen izan", dio auzotarrak. Umezurtz batzuei eskainitakoa izan zen, Ariadnaren ustez, Txilen emandako kontzerturik xarmagarriena: "Ipuin bat sortu eta abestiekin uztartu genuen. Umeak adi-adi zeuden eta oso esker onekoak zirela erakutsi ziguten". Sustraien Ahotsa taldeko lagunak 'Nairobiarra' autobus xelebreaz baliatu ziren Txilen ibiltzeko. Ariadnek azaldu digunez, "Nairobiarra autobusa ezaguna da bertan, oso itxura hippya baitu eta jende askok bidaiatu baitu bertan. Gidariak esan zigunez, Inurra-tegi anaiek ere autobus horretan bidaiatu zuten duela urte batzuk".

Txilen barrera zinoazela autobusak izandako matxoranekin gogoratu da Ariadne: "Gidariak, Nairobiarra kontzertzeko, ordubete baino gehiago beharko zutela esan ziguten. Denbora aprobetxatzearren, abesbatzako zuzen-



Argazkian, Ariadne Txileko Villarica hirian

dariak ondoko herrixka batean entseatzera eraman gintuen. Gure saioa entzunda, jendea kalera aterata zen eta haiekin bazkaldu genuen".

1.500 lagunaren aurrean

Duela pare bat hilabete, abeslari intxaurreondotarra Japonian izan da, 14 egunez, San Inazio abesbatzarekin. Ariadnek dioenez, Japoniara egindako bidaiak, Txilera egindakoarekin alderatuta, oso bestelakoa izan da: "Txilen abenturazale gisa ibili ginen, eta Japonian, berriz, xehetasun guztiak alde-

aurretik ondo antolatu genituen".

Marugamen eta Kisiwadan, bertako familia batzuen etxetan izan ziren abesbatzako kideak; hiru egunez. "Japoniako jendea bihotz onekoa da. Hau da, guztia bisitarien esku jartzen dute. Auto istripu bat ikusi genuen eta autoetatik ere irribarretsu irten ziren! Bestalde, han autografoak ere sinatu genituen". nabarmendu digu Ariadnek. Guztira, zazpi kontzertu eman zituzten Japonian eta horietako bat gogoangarria izan zen auzotarrarentzat: "1.500 lagunaren aurrean aritu ginen eta, amaitzerakoan, ikusle guztiak txaloka zutik ikusteak hunkitu egin gintuen". Hurrengo bidaiak pentsatzen hasia da jada Ariadne, eta ondo bidean, irailean bi hilabeterako joango da Zeelanda Berrira.

Ariadnek 14 egun pasa berri ditu Japonian

euskararen
donostia
patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Haur antzerkia

- "Kokoroko"
Txiskiñe
Martxoaren 8an, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

Pailazoak

- "Amalurra bihotzean"
Kiki, Koko, Moko eta Flax
Martxoaren 8an, 12.00etan
Ibaetako plazan

Zinea

- "Chihiroren bidaiak"
Martxoaren 8an, 17.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

Bertsolaritza

- Ortxe Sariaren 3. kanporaketa
Martxoaren 7an: afaria
20.30etan eta saioa
23.30etan
Unanue jatetxean
Antolatzailea: Añorga Kultur eta Kirol Elkarte

Musika

- "Ezker zuzen"
Tapia eta Leturia
Martxoaren 14an, 20.00etan
Loiola Kultur Etxean

euskaraz.net